

## H7 Lurrak mugitzeko lizentzia

<b>Saila</b>	Hirigintza ( Landa lurretan ingurumena)
<b>Zer da / Zertarako da</b>	Lizentzia hau ematen da hiri lurzorutan lur-mugimenduak eta inauste- eta lautze-lanak egiteko.
<b>Nork eska dezake?</b>	Edozein pertsonak edo haren legezko ordezkariak.
<b>Aurkeztu beharreko agiriak</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Eskatera-idazkia, eskabide orokorrari jarraiki egina.</li><li>2. Interesdunaren NANA.</li><li>3. Lurrak mugitzeko lanez arduratuko diren goi-mailako eta erdi-mailako teknikarien izendapena.</li><li>4. Proiektu tekniko ikus-onetsia, ondoko hauek jasoko dituena:<ol style="list-style-type: none"><li>1. Planoak, gutxienez 1/500 eskalakoak, eta sestra-kurbak metrorik metro adierazita; aurrez dagoen lur-zatiketa eta lur-zatien jabetzak azalduko dira, bai eta bertan dauden eraikinak eta zuhaitzak ere. Beharrezkoak diren profilak sartuko dira.</li><li>2. Memoria: obren plano topografikoaren—jatorrizkoaren eta aldatutakoaren— ezaugarriak, neurriak eta aipamenak, eta etapen plangintza jasoko da; segurtasuneko baldintza teknikoak, eta erremateko ezpondetaraino finkatuta dauden guneak egiaztatu beharko dira.</li><li>3. Beste administrazio batzuen txostena (URA eta Biodibertsitate Departamentua):<ul style="list-style-type: none"><li>• Mugimendua &lt; 500.000 m<sup>3</sup>-koa bada, interesdunak ekarri beharko ditu.</li><li>• Mugimendua &gt; 500.000 m<sup>3</sup>-koa bada, interesdunak ekarri ahalko ditu, eta, bestela, Udalak berak eskatuko ditu.</li></ul></li></ol></li></ol>
<b>Non eskatzen da?</b>	Udaletxeko sarrera erregistro orokorrean (San Bartolome 2, astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:00era).  OHARRA: Aurrez aurre teknikariarekin bildu nahi ez gero ordutegia astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:30era. Hitz ordua duen herritarrari emango zaio lehentasuna. Hitz ordua eskatzeko telefono bidez: 943 697320 edo hirigintza@ibarra.eus
<b>Zenbat kostatzen da?</b>	Salbuetsita baldin eta lur mugimendu horiek onarturiko hiritatze proiektu batean jaso badira edo eraikuntza egiteko proiektuan. Bestelako kasuetan ordenantza fiskalen arabera. 2016 4,75% PEM
<b>Prozeduraren epea</b>	-Zenbatetsitako epea: hilabete. - Legezko gehieneko epea: hiru hilabete. - Administrazioaren isiltasunaren ondorioak: aldekoa, betiere hirigintza- edo lurralde-antolamenduarekin bat badator.
<b>Araudi aplikagarria</b>	- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 207. artikulua eta hurrengoak (EHAA, 138. zk., 2006/07/20).

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Indarrean dagoen udal plangintza.</li> <li>- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa.</li> </ul>
<b>Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Eskabide-orria eta agiriak jasotzea, eskaneatzea, egiaztatzea eta erregistratzea.</li> <li>2. Eskatzaileari kopia zigilatu bat ematea, ziurtagiri gisa.</li> <li>3. Hirigintza edo Ingurumen Sailari bidaltzea.</li> </ol>
<b>Geroagoko izapideen laburpena</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Txosten teknikoa egitea Eskabidea aztertu eta analizatzea, eta ingurumen eta hirigintza araudiari ondo egokitzen zaion egiaztatzea. Beste administrazio publiko batzuek txostena nahitaez egin behar badute, haiei eskabidearen berri ematea.</li> <li>2. Organo eskudunak ebazpena ematea.</li> <li>3. Kontu-hartzaileari bidaltzea, likidazioa egin dezan.</li> <li>4. Eskatzaileari jakinaraztea.</li> </ol>
<b>Agiri lagungarriak</b>	HIRIGINTZAKO ESKAERA ORRIA
<b>Nork onartu behar du?</b>	Alkatetzako dekretua
<b>Izapidetzeko ardura duen udal saila</b>	Ingurumena
<b>Informazioaren balioaldia</b>	Araudia aldatzen den arte.
<b>Oharrak</b>	Hainbat mailatan (bide publikoen erabilera berezia egitean, putzu septikoak kentzean, eta abar) izan daitezkeen erantzukizunei aurre egiteko jarri diren fidantzak eta bermeak itzultzeko eskaera ere egin beharko da.